

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	INDUSTRIA-INSTALAZIOEN ETA -EKIPAMENDUEN GARBIKETA	Iraupena	80
Kodea	MF1314_1		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eremu irekietako eta industria-instalazioetako garbiketa	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Eremu irekietako garbiketa	Iraupena	50
	Eremu ireki eta industria-instalazioetako garbiketako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC1314_1 INDUSTRIA-INSTALAZIO ETA -EKIPAMENDUETAN GARBIKETA-LANAK EGITEA gaitasun-atalarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Industria-instalazio eta - ekipamenduetan sortutako hondakin-motak deskribatzea.

EI1.1 Erabilera industrialeko objektu-moten ezaugarriak ezagutzea (gainazalak, deposituak, tangak, eta abar), garbiketa-metodoa hautatzeko.

EI1.2 Garbitu behar diren industria-ekipamenduak izendatzea.

EI1.3 Industria-instalazio eta - ekipamenduetan sortutako hondakin-motak identifikatzea.

EI1.4 Industria-ekipamenduak, hala nola tangak, deposituak eta ontziak, garbitzeko eta desinfektatzeko metodoak eta teknikak ezagutzea.

EI1.5 Garbiketa- eta desinfekzio-lanetan erabiltzen diren tresnak, lanabesak eta makineria zerrendatzea.

EI1.6 Kanpoan zein barnean sortzen diren hondakinei zer tratamendu egin behar zaien jakitea.

EI1.7 Beste industria-eremu itxi mota batzuk identifikatzea, bai eta haiek garbitzeko eta desinfektatzeko metodoa ere.

EI1.8 Industria-instalazio batean sortutako hondakinak identifikatzeko kasu praktiko batean:

- Garbitu behar diren objektuak, ekipamenduak, gainazalak eta abar identifikatzea.
- Industria-jarduerak sortzen dituen hondakin-motak identifikatzea.
- Besteak beste, hondakin- edo gainazal-motaren arabera egokiena zer garbiketa-metodoa den adieraztea.
- Eremua garbitzeko zer tresna eta lanabesa eta garbiketa-produktu behar diren adieraztea.

A2: Gainazal, depositu, ontzi, tanga eta gune itxietan, desinfekzio bustia egiteko teknikak aplikatzea, higiene- eta apaindura-kondizioetan.

EI2.1 Desinfekzio-lanetan jarduteko testuinguruak identifikatzea.

EI2.2 Desinfekzio-lanetan erabiltzen diren tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, jarduera-testuinguruaren arabera.

EI2.3 Desinfektatzeko behar den makineria erabiltzeko modua eta mantentze-lanak deskribatzea.

EI2.4 Garbiketan erabiltzen diren desinfekzio-produktuak identifikatzea, eta haien etiketak interpretatzea, segurtasun-neurri gisa.

EI2.5 Desinfektatzeko metodoak deskribatzea, eta desinfektatu beharreko eremuari lotzea.

EI2.6 Sortutako hondakinak biltzeko prozedura adieraztea.

EI2.7 Prozesuan gorabeherak gertatzean nola jokatu behar den deskribatzea.

EI2.8 Deposituen, tangen eta gune itxien desinfekzio eta garbiketa bustia egiteko kasu praktiko batean:

- Garbitu behar diren gainazalen, deposituen, ontzien, tangen eta gune itxien ezaugarriak identifikatzea.
- Garbiketa-teknikarik egokiena hautatzea.
- Hautatutako teknikaren arabera, objektuak garbitzeko eta desinfektatzeko behar diren baliabide materialak (garbiketa-ekipamenduak eta -produktuak) adieraztea.
- Hondakinak jasotzeko eta, industrian erauzi arte, mantentzeko prozedura adieraztea.

A3: Gainazalen, deposituen eta ontzien garbiketa lehorra egiteko teknikak erabiltzea, instalazioen eta pertsonen osasun-egoera ona mantentzeko.

EI3.1 Garbiketa lehorreko lanak egiteko tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, jarduera-testuinguruaren arabera.

EI3.2 Jarduera hasi aurretik instalazioak gelditu baino lehenago egin behar diren egiaztapenak deskribatzea.

EI3.3 Jarduera hasi aurretik norbera babesteko ekipoen inguruan zer egiaztatu behar den deskribatzea.

EI3.4 Gainazalen, deposituen eta ontzien garbiketa lehorra egiteko behar den makineriaren oinarriko erabilera eta mantentze-lanak deskribatzea.

EI3.5 Garbiketa lehorra egiteko metodoak zerrendatzea, eta zikinkeria-motarekin lotzea.

EI3.6 Sortutako hondakinak biltzeko prozedura adieraztea.

EI3.7 Prozesuan gorabeherak gertatzean nola jokatu behar den deskribatzea.

EI3.8 Gainazalen eta ontzien lehorreko desinfekzioa eta garbiketa egiteko kasu praktiko batean:

- Jarduera hasi aurretik zer egiaztapen-mota egin behar den adieraztea.
- Garbitu behar diren gainazalen, deposituen eta ontzien ezaugarriak identifikatzea.
- Garbiketa lehorra egiteko teknikarik egokiena hautatzea.
- Objektuak garbitzeko eta desinfektatzeko behar diren baliabide materialak (garbiketa-ekipamenduak eta -produktuak) adieraztea eta erabiltzea.
- Hondakinak jasotzeko eta, industrian erauzi arte, mantentzeko prozedura adieraztea.
- Garbiketa-lanak egiteko norbera babesteko neurriak zuzen aplikatzea.

A4: Tangen eta gunen itxien garbiketa bustia egiteko teknikak erabiltzea, behar den higie-maila lortzeko.

EI4.1 Garbiketa lehorreko lanak egiteko tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, jarduera-testuinguruaren arabera.

EI4.2 Jarduera hasi aurretik instalazioak gelditu baino lehenago egin behar diren egiaztapenak deskribatzea.

EI4.3 Jarduera hasi aurretik norbera babesteko ekipoen inguruan zer egiaztatzea behar den deskribatzea.

EI4.4 Tangen eta gunen itxien garbiketa bustia egiteko behar den makineriaren oinarritzko erabilera eta mantentze-lanak deskribatzea.

EI4.5 Garbiketa bustia egiteko metodoak zerrendatzea, eta zikinkeria-motarekin lotzea.

EI4.6 Sortutako hondakinak biltzeko prozedura adieraztea.

EI4.7 Prozesuan gorabeherak gertatzean nola jokatu behar den deskribatzea.

EI4.8 Tangen eta gunen itxien garbiketa bustia egiteko kasu praktiko batean:

- Garbitu behar diren tangen eta gunen itxien ezaugarriak identifikatzea.
- Jarduera gauzatzeko behar diren instalazioetan eta ekipamenduetan aurrez egin behar diren egiaztapen-motak adieraztea.
- Garbiketa bustiko teknikarik egokiena hautatzea.
- Tangak eta gunen itxiak garbitzeko eta desinfektatzeko behar diren baliabide materialak (garbiketa-ekipamenduak eta -produktuak) adieraztea eta erabiltzea.
- Garbiketa-lanak egiteko norbera babesteko neurriak zuzen aplikatzea.

A5: Tangen eta gunen itxien garbiketa lehorreko teknikak aplikatzea, 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuak, baliabideak eta tresnak erabiliz.

EI5.1 Garbiketa lehorra egiteko tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, jarduera-testuinguruaren arabera.

EI5.2 Tangen eta gunen itxien garbiketa lehorra egiteko behar den makineriaren oinarritzko erabilera eta mantentze-lanak deskribatzea.

EI5.3 Jarduera hasi aurretik instalazioetan egin behar diren egiaztapenak deskribatzea, eta behar diren baimenak eta ziurtagiriak zerrendatzea.

EI5.4 Ekipamendu eta tresnetan deflagrazioaren aurkako bilgarriarekin eta beste segurtasun-sistema batzuekin (aireztatpena, argizatpena) lotuta aurrez egin behar diren egiaztapenak deskribatzea.

EI5.5 Garbiketa lehorreko metodoak zerrendatzea, eta zikinkeria-motarekin lotzea.

EI5.6 Prozesuan gorabeherak gertatzean nola jokatu behar den deskribatzea.

EI5.7 Tangen eta gunen itxien garbiketa lehorreko kasu praktiko batean:

- Garbitu behar diren tangen eta gunen itxien ezaugarriak identifikatzea.
- Jarduera gauzatzeko behar diren instalazioetan eta ekipamenduetan aurrez egin behar diren egiaztapen-motak adieraztea.
- Garbiketa lehorra egiteko teknikarik egokiena hautatzea.
- Tangak eta gunen itxiak garbitzeko eta desinfektatzeko behar diren baliabide materialak (garbiketa-ekipamenduak eta -produktuak) adieraztea eta erabiltzea.
- Garbiketa-lanak egiteko norbera babesteko neurriak zuzen aplikatzea.

A6: Lanpostuaren arriskuei lotutako prebentzio-neurriak aplikatzea, arazoak edo istripuak saihesteko.

EI6.1 Lan-eremuan produktu toxikoak daudela agerian uzten duten lehen sintomak deskribatzea.

EI6.2 Industria-ekipamendu eta -eremuak garbitzeko lanetan erabiltzen diren produktuak eragiten dituzten arriskuak identifikatzea.

EI6.3 Industria-ekipamendu eta -eremuak garbitzeko lanetan erabiltzen diren prozedurek eta aplikazio-ekipamenduek eragiten dituzten arriskuak identifikatzea.

EI6.4 Lantokietan dauden suteen aurkako ekipamenduak non dauden identifikatzea, behar izanez gero erabiltzeko.

Edukiak

1. Industria-instalazioak eta -ekipamenduak garbitzeko eta desinfektatzeko oinarritzko alderdiak identifikatzea.

- Jarduera-objektuen definizioa: motak eta ezaugarriak.
 - Gainazalak.
 - Deposituen eta ontziak.
 - Tangak eta gunen itxiak.
 - Bestelako deposituak.
- Industria-hondakin motak. Ezaugarriak.
- Norbera babesteko ekipoak.
- Osasun publikoan eta ingurumenean dituzten eraginak.
- Jarduera-testuinguruaren arabera (ekorketak eta urez garbitzeko teknikak; xurgatzea, hidrogenatzea, hidrogarbiketa, eskuilaz garbitzea, karrakatzea, kolpe txikiak ematea eta abar) egokiak diren desinfekzio-metodoak eta -teknikak.

- Desinfektatzeko tresnak, lanabesak eta produktuak.
 - Desinfektatzeko tresna- eta lanabes-motak, jarduera-testuinguruaren arabera.
 - Desinfektatzeko produktu-motak, jarduera-testuinguruaren arabera.
 - Biltegitratzea.
- Jarduera-testuinguru guztietan desinfektatzeko behar den makineria erabiltzea eta haren mantentze-lanak egitea.
- Industria-hondakinen barne-kudeaketa:
 - Minimizazioa.
 - Berrerabiltzea.
 - Trinkotzea.
 - Etiketatzeta.
 - Biltegitratzea.
- Industria-hondakinen kanpo-kudeaketa:
 - Birziklatzea.
 - Zabortegian biltegitratzea.
 - Erraustea.
 - Kanpo-kudeaketako joerak.

2. Gainazalen, deposituen eta ontzien garbiketa eta desinfekzio bustia

- Garbiketa bustia egin behar zaien gainazalak, deposituak eta ontziak.
- Garbiketa bustia egiteko tresnak, lanabesak eta makinak:
 - Motak.
 - Erabilera.
- Garbiketa hezea egiteko produktuak:
 - Garbiketa-produktu motak: distira-emaileak, garbigarriak eta abar.
 - Produktu kimikoen etiketak.
 - Gainazal bakoitzerako egokia den garbiketa-produktua hautatzea eta aplikatzea.
- Garbiketa bustiko lanak egiten ari direla adierazteko seinaleztatzea.
- Desinfekzio bustiko metodoak.
- Garbiketa bustia egitean sortzen diren hondakinak biltzea eta maneiatzea.

3. Gainazalen, deposituen eta ontzien garbiketa lehorra

- Garbiketa lehorra egin behar zaien gainazalak, deposituak eta ontziak.
- Garbiketa lehorra egiteko tresnak, lanabesak eta makinak:
 - Motak.
 - Erabilera.
 - Mantentze-lanak eta garbiketa.
- Garbiketa lehorra egiteko produktuak:
 - Garbiketa-produktu motak: xurgatzea, hareaz eta urez garbitzea, urez garbitzea, karrakatzea, kolpe txikiak ematea, teknologia berriak eta abar.
 - Produktu kimikoen etiketak.
 - Gainazal bakoitzerako egokia den garbiketa-produktua hautatzea eta aplikatzea.
- Garbiketarako egiteko norbera babesteko ekipoa: erabilera eta mantentze-lanak.
- Jarduera hasi aurretik egin behar diren segurtasun-egiaztapenak.
- Garbiketa lehorreko lanak egiten ari direla adierazteko seinaleak.
- Garbiketa lehorreko metodoak.
- Garbiketa lehorra egitean sortzen diren hondakinak biltzea eta maneiatzea.

4. Tangen eta gune itxien garbiketa bustia

- Tangen eta gune itxien garbiketa bustia egiteko tresnak, lanabesak eta produktuak:
 - Garbiketa-tresna eta -erreminta motak.
 - Garbitzeko produktu-motak.
 - Tanga eta gune itxi bakoitzerako egokia den garbiketa-produktua hautatzea eta aplikatzea.
 - Tangak eta gune itxiak garbitzeko behar diren makinak erabiltzea eta haien mantentze-lanak egitea.
- Tangen eta gune itxien garbiketa bustiko metodoak, jarduera-testuinguruaren eta zikinkeria-motaren arabera.
- Jarduera hasi aurretik egin behar diren segurtasun-egiaztapenak.

5. Tangen eta gune itxien garbiketa lehorra

- Tangen eta gune itxien garbiketa lehorra egiteko tresnak, lanabesak eta produktuak:
 - Garbiketa-tresna eta -erreminta motak.
 - Ezaugarri bereziak (deflagrazioaren aurkako bilgarria).
 - Garbitzeko produktu-motak.

- Tanga eta gune itxi bakoitzerako egokia den garbiketa-produktua hautatzea eta aplikatzea.
- Tangak eta gune itxiak garbitzeko behar diren makinak erabiltzea eta haien mantentze-lanak egitea.
- Tangen eta gune itxien garbiketa lehorreko metodoak, jarduera-testuinguruaren eta zikinkeria-motaren arabera.
- Jarduera hasi aurretik egin behar diren segurtasun-egiaztapenak.
- Tangen eta gune itxien garbiketa lehorreko eta bustiko segurtasuna eta laneko arriskuen prebentzioa.

6. Industria-instalazioak eta -ekipamenduak garbitzeko eta desinfektatzeko prebentzio-neurriak aplikatzea.

- Desinfektatzeko eta garbitzeko produktuek eragiten dituzten arriskuak:
 - Intoxikazioa: sintomak.
 - Erredurak.
 - Jardun-protokoloa.
- Desinfekzio- eta garbiketa-lanak egiteko norbera babesteko ekipoak.
- Desinfektatzeko eta garbitzeko tresnak, lanabesak eta makinak babesteko mekanismoak.
- Babes-seinaleak: "Zerbitzutik kanpo" txartel gorria, besteak beste.
- Lantokiko alarma-seinaleak: akustikoak, bisualak, eta abar.
- Suteen aurkako ekipoak: tokia eta erabilera.
- Lehen laguntza, industria-instalazioetako garbiketan eta desinfekzioan.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Ez dago sartzeko eskakizunik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eremu irekietako eta industria-instalazioetako garbiketa.